



Lagun Artean

TXOSTENA 2014



Lagun Artean Harrera Zentroa

Gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka: Etxerik gabeko pertsonen harrera, esku-hartzea eta gizarteratzea:

NOLA EGIN AHAL DUZU BAT GUREKIN?

Boluntario gisa: boluntarioak gure proiektuetarako ezinbestekoak dira, eta horietan parte hartzeko aukera eskaintzen dugu.

Bazkide gisa: Bazterkeriaren aurkako borrokaren konpromisoa guztiona da; horregatik, lagundu iezaguzu eraldaketa soziala bultzatzen.

Dohaintza batekin: Babestu etxerik gabeko pertsonentzako ohea, eta **“HOBE OHEA KARTOIA BAINO”** Kanpainarekin bat egin.

BBK 2095 0355 70 3830607841

LABORAL KUTXA 3035 0057 90 0570043812

Dohaintza solidarioa: irabazi asmorik gabeko elkarte bat sartu testamentuko beste onuradun bat balitz bezala, gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonetikiko zintzotasuna eta konpromisoa erakutsiz.

Enpresa solidarioa: enpresa pribatuei guri laguntzeko aukera ematen diegu, gure lana babes dezaten.

Egoitza soziala

Julio Urquijo kalea 5 – Lonja – PK 48014 – Bilbo

Tel.: 94 447 24 87 / Faxe: 94 476 50 50

Posta elektronikoa: lagun-arteana@lagun-arteana.org ▪ WEB orria: www.lagun-arteana.org





Aurkibidea

Eskerrak	4
Aurkezpena	5
Nor gara	6
Non gaude	8
Zer egiten dugu	9
Zerbitzu irekiak	13
Gaueko zentroa	14
Eguneko zentroa	16
Prestakuntza arloa	18
Egoitza arloa	20
Gizarte eraldaketa	25
Kooperazioa	28
Kalitatea	29
Arlo Ekonomikoa	30



Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiegu erakunde publiko eta pribatuei, bazkideei, boluntarioei eta bestelako kolaboratzaileei 2014an emandako laguntzagatik. Zuen guztion laguntzarik gabe Lagun Artean ez lizateke posible izango. Eskerrik asko!



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



FUNDACIÓN
VÍCTOR TAPIA - DOLORES SAINZ



Fundación
Antonio Menchaca de la Bodega



Caritas
Diocesana de Bilbao
Bilboko Elizbarrutikoa



leioako ostalaritza eskola
escuela de hostelería de leioa

Martina de Zyricalday

BILBAO

Desde 1830





Aurkezpena

Orrialde hauen bitartez, Lagun Artean Harrera Zentroaren **2014. urteko memoria** helarazi nahi dizuegu. Gure erakundea labur aurkeztu ostean, urte horretan garatutako jarduerak erakutsiko dizkizuegu, betiere gizarteratze eta autonomia prozesuak bultzatzen dituen esku-hartze esparruan, bazterkeria egoeran edo bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzat eta, bereziki, etxerik gabeko pertsonentzat.

Gaur egun, **etxebizitza arloan** 32 lagunentzako gau aterpetxea daukagu, eta behar askori erantzuten dioten hamabi egoitza (immigrazioa, bakarrik dauden edo adingabeen ardura duten emakumeak, kronikotasuna, toxikomania, gizarte-bazterkeria, etorkin gazteen emantzipazioa, etab.) Gure zerbitzu irekiek gosariak, dutxak, garbitegia, kafea-berotasuna eta orientazio profesionala eskaintzen diete egunero guregana datozen guztiei. **Prestakuntza-okupazio arloan** Gizarteratze Zentro Balioaniztuna eta hainbat Prestakuntza Tailer ditugu. Lanbiderekin lankidetzan, Nekazaritzako Laguntzailearen lanbideziurtagiria jarri dugu martxan, Aize Onak baserrian.

Bikaintasunaren aldeko konpromiso etengabea dugu. Horregatik, aurten gure lehen **Berdintasun Plana 2014-2017** ezarri dugu, eta bazterkeria egoeran dauden emakumeak azken urteotako erronka nagusia izan dira. Halaber, 2014an aitortza lortu dugu **Gizarte Intereseko Erakunde** gisa.

Nabarmendu nahi dugu Lagun Artean elkarteak beste urte batez egin duen esfortzua. Izan ere, oraingo egoera sozioekonomikoa oso zaila da bere proiektu eta zerbitzu guztiak mantendu, berriz finkatu, hobetu eta zabaltzeko, eta hobekuntza etengabearen alde egiteko, elkarte osatzen duten profesional, bazkide, boluntario eta laguntzaile guztiei esker zalantzarik gabe.

Azkenik, eskerrik asko babesten gaituzten erakunde publiko eta pribatuei. Haien babes, konfiantza eta laguntzarik gabe ezin izango genuke gure eguneroko lana burutu. Dagoeneko 31 urte dira gure kaleetan etxegabetasuna deusezteko lanari ekin genionetik. Ezin gara konformatu bazterkeria kudeatzearekin, gure gizartetik errotik atera behar dugu. Horixe da gure erronka datozen urteetarako.

Lagun Artean Taldea



Nor gara

Lagun Artean irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta bere lan-esparrua gizarteko esku-hartzea da. 1984ko urtarrilaren 17an eratu zen modu ofizialean LAGUN ARTEAN HARRERA ZENTROA izenarekin. Erabilera Publikoko izendatu zuten 2011. urtean, eta Gizarte Intereseko 2014. urtean. Etxerik gabeko pertsonen gizarteratzea eta eraldaketa soziala bultzatzen jarduten du.


EGITEKOA

Lagun Artean Harrera Zentroa Bilboko Elizbarrutiko Cáritasera lotuta dagoen irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta etxerik gabeko pertsonak edo gizarte-bazterkeria egoera larrian eta bazterkeria arrisku larrian dauden pertsonak gizarteratzeko prozesuan laguntzen du. Horretarako, harrera, diagnostiko soziala, ostatua eta oinarrizko beharren estaldura, esku-hartze biopsikosoziioedukatioa eta prebentzioa, salaketa eta gizarte-sentsibilizazioa baliatzen ditugu.

IKUSPEGIA

Bidezko gizartearen alde egiten dugu, bazterkeriarik egon ez dadin, baina dagoen bitartean, Bilbon ezagunak izan nahi dugu bazterkeria arriskuan edota gizarte-bazterkerian dauden pertsonak artatzen dituen irabazi asmorik gabeko erakunde moduan. Gure esku-hartzea gizartearen errealitate berrietara egokitzen dugu, eta babesgabetasun handiagoa duten pertsonengana jotzen dugu bereziki.


BALIOAK





Nor gara


ORGANIGRAMA



GIZA BALIABIDEAK




Asebetetze-indizea



(Eskala 1etik 10era)

¹ KAL: Komunitatearen aldeko lanak egiten dituzten pertsonak

Non gaude






Zer egiten dugu

Lagun Artean, gure egitekoan azaltzen denez, etxerik gabeko pertsonak gizarteratzeko prozesuen aldeko konpromisoarekin jaio da, eta gure lana hurrengo bidez garatzen dugu: harrera, gizarte diagnostikoa, ostatua eta oinarrizko beharren estaldura, esku-hartze biopsikosozioedukatioa, etxerik gabeko pertsonen autonomia eta bizi-kalitate mailarik handiena izan dezaten.

Prozesuen mapa





Zer egiten dugu

Pertsona bakoitzari gizarte-laguntza pertsonalizatua eskaintzen diogu, beren ezaugarri eta gaitasunei erantzuteko. Abiapuntua da gizaki bakoitzak aurrerapenerako aukerak dituela. Horregatik, **DIAGNOSTIKOA** egiten dugu, pertsonaren beharrak eta ahalmenak identifikatzeko. **BANAKAKO ARRETA PLANAK** (BAP) gidatzen du esku-hartze prozesua, pertsonaren eta bere erreferentziako profesionalen artean adostuta, eta prozesu osoko gida bezala funtzionatzen du.

Banakako esku-hartze sozioedukatiboa burutzeko metodologia laguntza-harremanean oinarritzen da, hau da, pertsoneri gizarteratzeko prozesuetan laguntzen zaie, harreman-loturak sortuz eta haientzat erreferente izanez. Laguntza eredu baldintzarik gabeko harreran, negoziazioan, ekintzaren planifikazioan eta banakako laguntzan oinarritzen da. Horretarako, prozesuaren garapena pertsonen eboluzio-eritmoetara egokitzen da, eta pertsona horiek beren prozesuaren protagonistak dira.


Egiten ditugun **ekintzak** hurrengo alorretan kokatzen dira:

- Etxegabetasunak pertsonentzat dakarren narriadura larriaren arriskua **prebenitu**, denbora betetzeko, prestatzeko eta gaitzeko alternatiba sortuz, horiek gizarteratu eta laneratzeko helburuarekin.
- Gizarteratzea **sustatu**, enpleguaren bitartez, pertsonen prestakuntza eta gaitasuna ahalbidetuz, lan merkatura sartzeko aukerak areagotuz eta beren egoera administratiboa legeztauz.
- Lan **komunitarioa** integrazioaren bila eta eta kulturartekotasunetik datorren aberastasunaren jakitun bihurtuz.
- Lankidetzak, koordinazioa eta **osagarritasuna** gizarte zerbitzuekin, osasun zerbitzuekin, prestakuntza eta lan zerbitzuekin, etab.
- **Berdintasuna**, genero-ikuspegia landuz, emakumeak gizartean duen rolaen ideia diskriminatzailea aldatzen saiatuz eta eskubide eta behar berberak dituen gizaki gisa balidatuz.



Zer egiten dugu


Banakako Arreta Planaren dimentsioak (BAP)





Zer egiten dugu

IBILBIDEA



² 2014ko uztailean Mundutik Mundura programako HEGAZ baliabidea itxi zen, eta abuztuan Bitartekaritza programaren barruan zabaldu zen berriro, bakarrik dauden edo adingabeen ardura duten emakumeentzat.



Zerbitzu irekiak

Oinarrizko beharren estaldura zerbitzua (gosaria, kafea-berotasuna, garbitegia eta higiena eta komuna) Bilboko etxerik gabeko pertsona guztientzat. Gainera, gizarte baliabide sozialei buruzko **informazioa eta orientazioa** ematen da, baita Gizarteratze-prozesuak hasteari buruzkoa ere.



ORDUTEGIA


Gosaria: Astelehenetik igandera (8etatik 8:30era)

Kafea: Astelehenetik ostiralera (15etan)

Higienea: Astelehenetik ostiralera (14etatik 15:30era)

Garbitegia: Astelehenetik ostiralera (14etatik 15:30era)

2014. Urteko Zerbitzu Irekien datu nagusiak





Gaueko zentroa

Gaueko zentroa 32 lekuko gaueko aterpea da, eskakizun ertainekoa, eta etxerik gabeko pertsonen premiazko **ostatua** eskaintzen die. Ostatu zerbitzuak ohearen erabilera hartzen du, erabili eta botatzeko izararekin, koltxoi-zorro iragazgaitzarekin, burko-zorroarekin eta lumatxarekin. Bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dira: **Kontsigna (24 ordu), higiena eta dutxa, arropa garbiketa eta lehorketa, gosaria eta afaria**. Egonaldia egoera psiko-sozialen arabera alda daiteke, gutxienez 3 eta 7 egun bitarteko estalduratik gehienez 6 hilabetera arte. Egonaldia luzatzea gizarteratze-prozesuari lotuta egongo da beti, eta, kasu berezietan, epea luzatu daiteke.



HELBURUAK

- Ostatua eman eremu egoki, seguru eta estalian, gaua igarotzeko eta norberaren gauzak gordetzeko.
- Oinarrizko beharrak asetzea: elikadura (gosaria eta afaria), higiena eta dutxa, arropa garbitu eta lehortzea.
- Laguntza soziala ematea gizarteratze-prozesuetan.

Gaueko Zentroaren datu nagusiak 2014. urtean






Gaueko zentroa

Gaueko zentroak **afari-zerbitzua** dauka, Euskal Herriko Unibertsitateko Ostalaritza Eskolarekin egindako hitzarmenari esker. Zerbitzu horrek gure zentroan egunero gaua igarotzen duten 32 lagunen gaueko elikadura bermatzen du. Garbitegi zerbitzuan arropa garbitu eta lehertzeko **2308 zerbitzu** eman dira.




Gaueko Zentroaren datu nagusiak 2014. urtean


Irteerak



Zona de origen



Adina





Eguneko Zentroa



BALIO ANITZEKO GIZARTERATZE ZENTROAren helburua **gizarteratze-prozesuak** abiatzea da adinez naguak diren etxerik gabeko pertsonekin, sexu-bereizketarik gabe. 20 leku ditu, eta horietatik 15 Bizkaiko Foru Aldundiarekin adostuta daude.

HELBURUAK

- Aldi batean edo nahiko modu iraunkorren gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan bizi diren pertsonak marjinaltasunean ez bukatzea edo kroniko ez bihurtzea.
- Pertsona horiek kalean bizitzeagatik pairatzen duten narriadura murriztea.
- Baztertutako edo arrisku handia duten pertsonak gizarteratzen lan egitea, harrera, negoziazio, planifikazio eta laguntza prozesuaren bitartez.

Balio anitzeko Gizarteratze Zentroaren datu nagusiak 2014. urtean

Artatutako 33 lagun

% 100eko okupazioa

batez beste 165,45 eguneko egonaldia

ORDUTEGIA

- 9etatik 10etara: Harrera
- 10etatik 11:30/12etara: Programatutako jarduerak
- 12etatik 14etara: Jantoki sozialak. Laguntza psikologikoa.
- 14etatik 16etara: Zerbitzu Irekiak (kafetegia, TB, denbora libre, garbitegia, dutxak, etab.)
- 16etatik 19etara: Programatutako jarduerak.
- Asteburuak: Aisialdi programa



Eguneko Zentroa

EKINTZAK


- Kudeaketa emozionalari laguntzeko taldea
- Gaztelania eta alfabetatze klaseak atzerritarrentzat (3 maila)
- Eskola-graduatu eta irakaskuntza ertainei laguntzeko klaseak
- Heziketa tailerrak (kultur integrazioa, ingurumena, atzerritartasuna, etab.)
- Ingeles klaseak
- Marrazketa eta pintura tailerra
- Sukaldaritza tailerra
- Musika kulturako tailerra
- Informatika eta internet
- Kirolak (futbola, igeriketa)
- Eztabaidak eta bideoforuma
- Irteera kulturalak eta txangoak



Balio anitzeko Gizarteratze Zentroaren datu nagusiak 2014. urtean


Helburuen lorpena

- helburuak lortu dira
- helburuak zati batean lortu dira
- ez dira helburuak lortu



Adina

- 45-65
- 30-44
- 18-29





Prestakuntza arloa

TAILER SOZIALAK

Tailer sozialek **hezkuntzako esku-hartze programa** osatzen dute, eta bertan norberaren baliabideak eta gaitasunak indartzeko prestakuntza eskaintzen da. Egunero **20 leku** ditugu.



ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera 10etatik 13etara eta 16etatik 19etara.

HELBURUAK


- Etxerik gabeko pertsonentzako oinarrizko prestakuntza ematea, gizarteratzea bultzatzeko.
- Eguneko Zentroan esku-hartze prozesuak abiatzeko sarbide izatea.

EKINTZAK

- Gaztelaniazko prestakuntza atzerritarrentzat
- Irakaskuntza ertainei laguntzea
- Izaera psikoedukatiboko tailerrak
- DBHn eta lanbideko heziketa zikloan (erdi mailan edo goi mailan) gradudun izateko prestakuntzan laguntzea.



Tailer Sozialen datu nagusiak 2014. urtean





Prestakuntza arloa

NEKAZARITZAKO LAGUNTAILEAREN LANBIDE ZIURTAGIRIA

Lanbiderekin elkarlanean, **nekazaritzako laguntzailearen** ikastaroa eman da, **370 ordukoa** (330 ordu teoriko eta 40 ordu praktiko), Aize Onak baserrian 2014ko ekainaren 30etik urriaren 2ra.

Guztira **15 lagunek** lortu dute profesionaltasun ziurtagiria eta lanbide praktikak egin dituzte.

Aldi berean, gure baserriko nekazaritza ustiapena aktibatu da, eta instalazioak eta ekipamendua hobetu dira.



HELBURUAK

- Beharrezko eginkizunak garatzea barazki jangarrien espezie eta aldaerak sortzeko prozesua osatzeko, aire librean edo babesean, kasu bakoitzean tekninarik egokienak erabilia.
- Nekazaritza praktika osagarriak egitea uzta bikainak lortzeko, betiere kalitatea, ingurumenaren babesa eta errentagarritasun ekonomikoa kontuan hartuta.





Egoitza arloa

Etxebizitza arloan, 12 etxebizitzako sarea dugu, guztira 69 lekurekin, eta hurrengo **programei** erantzuten diegu: **Aldebaran, Liza, Kronikotasuna, Emakumea, Inmigrazioa eta Bitartekaritza.**

Egoitza-baliabideak **bizi eremuak** dira, eta bertan gizarteratzeko ibilbide pertsonalak gauzatzen dira. Hona hemen **xede populazioa**: Bi sexuetako etxerik gabeko pertsonak, 18 eta 60 urte bitartekoak, eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden eta adingabeen ardura duten amak.

HELBURUAK

- Pertsonen alternatiba ematea gizarte-bazterkerian ez sartzeko edota kroniko ez bihurtzeko.
- Egoitza eskaintzea oinarritzko beharrak estali ahal izateko eta egonkortasuna emateko gizarteratze-prozesua hasteari begira.
- Aurkitutako beharrak eta pertsonaren gaitasunak kontuan hartuta, banakako arreta plana batera zehaztea lortu beharreko helburuekin.
- Pertsonen laguntzea autonomia mailarik handiena lortzeko eta gizarteratzeko prozesuan.





Egoitza arloa

ALDEBARAN PROGRAMA

Hezkuntza intentsitate ertaineko etxebizitzak dira **gizarte-bazterkeria egoeran edota arriskuan dauden pertsonentzat**. Lau egoitzako sarea dugu, eta **TAU SAREA** osatzen dute, guztira 29 lekurekin.

- **BLAS DE OTERO:** 4 leku
- **LUZARRA:** 9 leku
- **ETXEZURI:** 9 leku
- **BETANIA:** 7 leku



LIZA PROGRAMA

Hezkuntza intentsitate ertaineko etxebizitza bat dugu **gizarteratze fasean** dauden eta **toxikomania** arazoak dituzten pertsonen **tratamenduari laguntzeko**.

- **MENDIGANE:** 4 leku



Egoitza arloa



KRONIKOTASUN PROGRAMA

Hezkuntza intentsitate ertaineko etxebizitza, egonaldi ertain-luzekoa, **kronikotasun-egoeran** dauden pertsonentzat.


- **MENDIPE:** 4 leku

MUNDUTIK MUNDURA PROGRAMA

BFAREN tutoretzan gutxienez urtebetez egondako **etorkinen emantzipaziorako** etxebizitza da³.

- **HEGAZ:** 4 leku

BFAREkin hitzartutako etxebizitza arloko datu nagusiak 2014. urtean



³ 2014ko uztaillaren amaieran itxi da programa hau.



Egoitza arloa

IMMIGRAZIO PROGRAMA: AIZE ONAK BASERRIA

Heziketa maila ertaineko etxebizitza bat da, gizarte-bazterkeri egoeran dauden etorkinei harrera emateko. Aize Onak proiektua berehalako arreta fasean kokatzen da, Eguneko eta Gaueko Zentroaren (gizarteratze-prozesuak hasten diren lekua) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren osteko deribazioaren (bertan jarraitzen dute prozesua) artean.

- **AIZE ONAK:** 10 leku



EMAKUME PROGRAMA

Heziketa maila ertaineko etxebizitzak dira, bakarrik dauden edota adingabeen ardura duten emakumeentzako. Hiru etxebizitzako sare bat dugu, guztira 14 lekurekin.

- **RAMON Y CAJAL:** 2 leku (emakumea bakarrik)
- **ÁGORA:** 6 leku (emakumea + adingabeak)
- **MUGABE:** 6 leku (emakumea + adingabeak)






Egoitza arloa

BITARTEKARITZA PROGRAMA

Zubi-etxebizitzak dira, heziketa maila ertaineko etxebizitzaren eta etxebizitza autonomoen artekoak. DBEren azpitik dauden diru-sarrerak dituzten pertsonentzako edo gizarteratze-prozesua burutzeko laguntza puntual bat jasotzen jarraitu behar dutenentzako, prestakuntza prozesu bat edo bestelako bat burutzen egoteagatik. Bi etxebizitza ditugu, guztira 8 leku.


- **BETIRAKO:** 4 leku
- **HEGAZ:** 4 leku

2014ko datu orokorrak, Immigrazio, Emakume eta Bitartekaritzakoak




2014ko Egoitza arloko jatorri eta emaitza datuak

Jatorria



Prozesuaren emaitzak





Gizarte eraldaketa

SENTSIBILIZAZIOA ETA SALAKETA

Beste Bi plataforma

Lagun Artean Beste Bi plataformaren parte da hasieratik. Plataforma horrek etxerik gabeko pertsonen eskubideak eta gizarteratzea aldarrikatzen ditu. Plataformak agerraldiak egiten ditu etxerik gabeko pertsonaren bat kalean hiltzen den bakoitzean, eta bereziki azaroaren 24an, etxerik gabeko pertsonen egunaren harira.



Etxerik gabeko pertsonen gaueko 3. zenbaketa, Bilbon



Urriaren 29tik 30erako gauean egin zen etxerik gabeko pertsonen gaueko zenbaketa Bilboko kaleetan eta aldi berean beste euskal hiriburuetan eta Bizkaiko beste udalerrri batzuetan. 2010ean eta 2012an ere egin zuten moduan, Lagun Arteaneko 18 boluntarioko talde batek parte hartu zuen esperientzian.

Elizbarrutiaren Keinua.

Elizbarrutiaren Keinuaren inguruko Martxoaren 14ko manifestazioan parte hartu genuen. Leloa: "Ekonomia eredu horrek hil egiten du. Ekonomia inklusibo baten alde" .



Gizarte eraldaketa



Munduko arrozak

Lagun Arteaneko 100 pertsonatik gora hurbildu ziren ekainaren 14an Munduko Arrozen XI. Ediziora. Lagun Arteanek ekimen horretan parte hartu du hasieratik.

Elikagaien Bankuarekin lan egitea

Elikagaien Bankuak itzelezko laguntza ematen dio Lagun Arteani. Aurten elikagaiak biltzeko kanpainak egin dira sistematikoki. Lagun Arteaneko 15 pertsonak parte hartu dute, bereziki Deustuko supermerkatuetan laguntzen.



Identibuz esperientzia eta Zurrumurruen aurkako agenteak Deustu auzoan

Bilboko Udalaren Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritartasun Sailaren izenean, lan-espereintzia honetan parte hartzera gonbidatu gaituzte, auzoetan elkarbiritza hobe lortzeko. Europako Kontseiluak sustatutako zurrumurruen aurkako Europako estrategia bat da. Proiektu horren esparruan Deustu aukeratu da sentsibilizazio-kanpaina hori abian jartzeko eremu gisa. Atzerritarren inguruko estereotipo negatibo eta zurrumurru faltsuen aurka sentsibilizatzeko kanpain bat da.

Gizarte eraldaketa

SAREAK ETA FOROAK



EAPN. Pobreziaren eta Gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako Sarea. Euskadi.



GIZARDATZ. Gizarte Ekimen eta Esku-hartzeko Erakundeen Elkarte.



EZETZ!. Indarkeria matxistaren aurkako elkarten euskal sarea.



EKAIN. Gizarteratzearen aldeko Euskadiko Sareak.



FIARE. Banka etikoa.



BESTE BI. Etxerik gabeko pertsonen gizarteratzearen aldeko plataforma.



PLATAFORMA NORTE. Etxerik gabeko pertsonen kolektiboarekin lan egiten duten Estatuko iparraldeko erakunde publiko eta pribatuen sarea. Aurten La Coruña-ra bidaiatu dugu plataformaren eskutik, urriaren 20tik 22ra, hiri horretan dituzten baliabideak ezagutzeko.



ECOSISTEMA. Bizkaiko 7 gizarte erakundearen sareko lana, etxerik gabeko pertsoneri etxebizitza-estaldura emateko.



Kooperazioa

Beste urte batez ere Lagun Arteanek Mungiaiko **Gizaberi Taldearekin eta Ermuako Urko Punta Elkartarekin lan egin du, Malin nazioarteko kooperazioko proiektu bi martxan jartzeko.**

Proiektu biek lagundu dute urtean zehar nekazaritza-ekoizpen bermatzen eta neurri horretan elikadura arloko gabeziak estaltzen lagundu dute. Era berean, laboreen dibertsifikazioan egin ahal izan da, familia onuradunek elikadura anitzagoa izateko.

ALE ERROTA

Gizaberi GKEak martxan jarri du Ale errota bat sortzeko proiektu bat. helburua errazago et arinago ehotzea, Maliko eremuko emakumeen lanaren onurarako.



NEKAZARITZA PROIEKTUA

Urko Punta Elkartarekin batera, "Uraren erretentzioa, baratzeak eta Emakumeen nekazaritza kooperatiba" izeneko proiektua babeste du Maliko Koulikoro eskualdean.



Kalitatea



PREMIE

2011ko otsailetik PREMIE kalitate ziurtagiria daukagu. 2013ko abenduan berriztatu dugu.



BERDINTASUN PLANA

2014an lan hau egin dugu: "Lagun Arteaneko emakume eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa". Gaur egun 2014-2017 aldirako Berdintasun Planean murgilduta gaude.



INGURUMEN BATZORDEA

2012ko martxotik birziklatzea, kontsumo arduratsua, xahutzearen aurka, energiaren aurrezkia eta bestelako gai batzuen inguruan lan egiten duen batzorde bat dugu. hobekuntza zerbitzuak planteatzen dizkie Lagun Arteaneko zerbitzu guztiei.


BATZORDE ETIKOA

2010eko amaieran Lagun Artean Elkartearen batzorde etikoa sortu zen. Etika batzordearen helburua da gure elkarte bere nortasunarekiko fidel izatea eta gaur egun Deustun duen presentzia bermatzen duten Egiteko eta Ikuspegia eraginkortasunez betetzea. Betiere beharizan handiena duten pertsonen onurarako. Aurten batzordeak elkarteko kontratatuentzako kode etikoa landu du.




Arlo ekonomikoa

DIRU-SARRERAK



GASTUAK





Arlo ekonomikoa

2014 EKITALDIAREN USTIAPEN KONTUAK

DIRU-SARRERAK	Erakunde publikoak	921.565,97
	Erakunde pribatuak	106.283,72
	Erabiltzaileen ekarpenak	18.884,41
	Dohaintzak	120.619,02
	Bestelako diru-sarrerak	24.542,00
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		1.191.895,12
GASTUAK	Langile gastuak	667.356,28
	Alokairuak	130.377,36
	Azpiegiturak mantentzea	109.414,13
	Erabiltzaileentzako laguntza edo zerbitzuak	100.592,34
	Administrazioa eta bulegoa	13.737,78
	Zergak eta finantza gastuak	1.211,55
	Aseguruak	8.559,27
	Kanpo zerbitzuak	97.159,18
	Amortizazioak	48.082,66
	Bestelako gastuak	26.205,65
GASTUAK GUZTIRA		1.202.974,12
EMAITZA		-11.079,00

FINANTZATZAILEA

Erakunde publikoak

- Bilboko Udala – Gizarte Ekintza Saila
- Bizkaiko Foru Aldundia – Gizarte Ekintza Saila
- Eusko Jaurlaritzza
 - Lan Zerbitzu Publikoa - Lanbide
 - Lan eta Gizarte Gaietako Saila

Erakunde pribatuak

- Gandarias Fundazioa
- La Caixa Fundazioa
- Menchaca de la Bodega Fundazioa
- Víctor Tapia - Dolores Sainz Fundazioa
- Bilboko Elizbarrutiko Cáritas

IKUSKARITZAK

- **Ikuskaritza ekonomikoa:** Auren Consultores Norte S.L enpresak gure kontuak ikuskatu ditu laugarren urtez jarraian, erakundearen egoera ekonomikoa behatuz.
- **Sare Ekonomiko Alternatibo eta Solidarioaren Gizarte Ikuskaritza (REAS):** 2014an Gizarte Ikuskaritza bat pasatu dugu eta Ekonomia Solidarioaren printzipioekin konpromisoa daukan erakundearen ziurtagiria lortu dugu. REAS Euskadiren eskutik jaso dugu eta printzipioak Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareko “Ekonomia Solidarioaren printzipioen kartan” jasota daude.

